

## Etorkizuneko Elikagaien Segurtasun Sistemak babesten

Europako Batzordeak Babes eta Koordinazio Ekintzarako deialdia egin du Elikagaien Segurtasunaren arloan, zehazki, EBren *Horizon 2020* Ikerketa eta Berrikuntza Programaren barruan.

Lehen aldiz proposatu da mota horretako ekimen bat ikerketaren Europako esparru-programan, eta EFSArene eta DG-RESEARCHren artean izandako elkarrizketei erantzuten die. Izan ere, elkarrizketa horien ondorioz, **hobeto lerrotzen ari dira ikerketa-funtsak eta EFSAk elikagaien segurtasunaren arriskuen ebaluazioaren arloan dituen beharrak.**

### Erronka

Deialdi horren erronka da **elikagaien segurtasunaren arloko interesdunen artean koordinazioa eta integrazioa sustatzea, etorkizuneko politikak babesteko dituzten zientzia-ebidentiak eskuragarri daudela bermatzeko.**

### Helburuak

Deialdiaren helburua da **elikagaien segurtasunaren arloan berrikuntza- eta ikerketa-plataforma bat osatzea, tartean diren eragileen (ikertzaileak, Europako agentziak, arriskuen kudeatzaileak, zientzia-komunitatea eta gizarte zibila) arteko koordinazio-lana ahalbidetuko duena, modu horretan denon artean koordinatzeko elikagaien etorkizuneko segurtasun-sistemak.**

Plataforma horrek honako helburu hauek bete beharko ditu:

1. Elikagaien segurtasunaren arloko I+b-ren egoera identifikatzea estatu kideetan eta elkartuetan.
2. Ikerketa- eta berrikuntza-gaitasuna areagotzea, elikagaien segurtasun arauetara dagokienez, Europa aitzindari izaten jarraituko duela bermatzeko.
3. Ezagutzak eta datuak trukatzeko zientzia-komunitatearen eta ordezkari politikoen artean, EBko agentziak barne.
4. Nazioko eta EBko finantzazioaren artean koherentzia hobetzea eta bikoizketa murriztea, elikagaien segurtasunaren ikerketan.
5. Ikuspegi berritzaileak garatzea, elikagaien segurtasunaren arloko I+b nahiz arriskuen ebaluaziorako prozedurak jakinarazteko. Halatan, herritarrek behar bezalako informazioa jasoko dute eta konprometitu egongo dira; izan ere, modu horretan kontsumitzaileek elikagaien segurtasunaren sistemetan erabilitako zientzia-ebidentiaren oinarrian konfiantza izaten lagunduko da.
6. Bideak aztertzea, zientziaren, politikaren eta gizartearen arteko epe luzerako interfazeetarako.

### Emaitzak

Honako hauek izango dira proiektuaren emaitza nagusiak: **estatz haraindiko ikerketa-programak, nazioko eta EBko ikerketa-agendak lerrotzea eta Elikagaien Segurtasunaren Ikerketa eta Berrikuntza Agenda Estrategikoa (SRIA) sortzea**, kontsumitzaileen itxaropenak, sortzen ari diren teknologiak eta lehentasun politikoak jorratzeko.

Aurrekontua: 3 milioi euro

Eskaerak aurkezteko epea: 2020ko urtarrilaren 22ra arte

Europako Batzordearen deialdia (<https://ec.europa.eu/info/funding-tenders/opportunities/portal/screen/opportunities/topic-details/fnr-08-2020;freeTextSearchKeyword=FNR-08-2020;typeCodes=1;statusCodes=31094501,31094502,31094503;programCode=H2020;programDivisionCode=null;focusAreaCode=null;crossCuttingPriorityCode=null;callCode=Default;sort>)

EFSA (<https://www.efsa.europa.eu/en/funding/calls/supporting-food-safety-systems-future>)

AESAN ([http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias\\_y\\_actualizaciones/noticias/2019/Horizon\\_2020.htm](http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/2019/Horizon_2020.htm))

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)